



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 30a

126. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00317. Galdera, biometanizazio-planten proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-25/PES-00318. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- 11-25/ACOP-00025. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Iruñean unibertsitateko karparen inguruan gertatutako sexu-erasoari buruzkoa (6. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00317. Galdera, biometanizazio-planten proiektuei buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak biometanizazio-planten proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 12ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo-Zurekin talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Carlos Guzmán Pérez jaunak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00317 galdera egin du biometanizazio-plantei buruz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dizut galderari erantzuteko:

1. Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Foru Legearen 56. artikuluen 2. puntuan xedatzen denez, garatuta egon beharko litzateke honako hauek arautzen dituen erregelamendua: lurzoru-ongarritzea, abereen gorozkiak eta lurzoruari ematen zaizkion gainerako materialak kudeatzeko baldintzak, kudeaketa hori optimizatzeko eta izan ditzakeen ondorio kaltegarriak minimizatze aldera, neurriak garatuz bereziki babesteko ur-ibilguak eta hezeguneak, eta neurri bereziak hartuz nitratoen pilaketak kutsatutako alubioi-lurrak leheneratzeko. Garatu al da erregelamendu hori?

Klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legea onetsi ostean, abenduaren 27ko 1051/2022 Errege Dekretua onetsi zen, Nekazaritza lurzoruen nutrizio jasangarriko arauak ezartzen dituen. Estatu-mailako arau horren xedea da ongarriak eta beste nutriente eta gai organiko batzuk lurzoruan aplikatzeak duen ingurumen- eta klima-inpaktua murriztea.

1051/2022 Errege Dekretuak honako alderdi hauek arautzen ditu, besteak beste:

- Ongarritze nitrogenatuen debekua denbortarte eta lursail jakinetarako.
- Erabilitako nutrienteak eta materia organikok ustiapen-koadernoan erregistratzeko betebeharra.
- Ongarritze-planak egiteko eta aplikatzeko betebeharra, zeinak laboreen nutriente-beharren kalkuluan oinarrituta egon behar duten.
- Ongarritze-aholkularitzaren derrigortasuna edo ongarritze-gomendioetarako tresna informatikoren bat erabiltzeko betebeharra.
- Nekazaritza-lurzoruen ongarritzeari eta laboreen nutrizio jasangarriari buruzko jardunbide egokien gidak egitea.
- Ur-ibilguko eta -masekiko babes-distantziak.
- Ongarri organikoak aldi baterako pilatzeko baldintzak.
- Simaurrak, ongarri organikoak eta jatorri organikoko beste material batzuk aplikatzeko baldintzak.
- Ongarriak aplikatzean sortutako emisioak arintzeko neurriak.

Arau horrez gainera, kontuan hartu behar da urtarrilaren 18ko 47/2022 Errege Dekretua, urak nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek eragindako kutsadura lausotik babesteari buruzkoa. Zehazki, 47/2022 Errege Dekretu horren arabera, Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak, 10. artikuluan aipatzen den egoerataxostenean jasotako informaziotik abiatuta, eta txosten hori Europako Batzordeari jakinarazi ondoren, nitratoek eragindako kutsadurak eragindako uren kokapena jasotzen duten mapak argitaratzen ditu lau urtean behin, bereziki nekazaritza-jatorriko nitratoek kutsatutakoenak, bai eta neurri egokiak hartu ezean kutsadura hori pairatzen ahal luketen urenak ere. Mapa horiek argitaratu ondoren, auto-

nomia-erkidegoek eremu kaltebera izendatu behar dituzte beren lurraldeko azalera jakinak, baldin eta azalera horietako urak 3. artikuluan aipatutako uretara jariatzen badira eta ur horien kutsadura areagotzen badute, oso neurri txikian bada ere.

Hurrengo urratsa da, errege-dekretu beraren 5. eta 6. artikuluen arabera, autonomia-erkidegoek nekazaritzaren alorreko jardunbide egokien kode bat edo batzuk egitea. Nekazariak nahitaez aplikatu beharko dituzte kode horiek eremu kalteberetan, eta lurraldearen gainerakoan ere aplikatzen ahalko dituzte, nekazaritza-jatorriko nitratoek eragindako kutsadura murrizte aldera. Era berean, nekazaritzako jardunbide egokien kodeak praktikan jartzea sustatzeko programak ezarriko dituzte, zeinetan barne hartuko baitira nekazarien prestakuntza eta informazioa.

Gainera, kaltebera izendatutako eremuetan, autonomia-erkidegoek jarduketa-programak ezarri eta abiarazi behar dituzte, nekazaritza-jatorriko nitratoek eragindako kutsadura prebenitze eta murrizte aldera.

Arau hori aplikatuz, berriki onetsia izan da uztailaren 23ko 85/2025 Foru Dekretua, zeinaren bidez berrikusten baita nekazaritza-iturrietatik datozen nitratoek sortutako uren kutsadura lausoarekiko kalteberak diren eremuen izendapena. Bestalde, jarduketa-programa berriak onesteko lanak hasi dira. 47/2022 Errege Dekretuaren 6. artikuluan xedatutakoari jarraituz jarduketa-programa horiek onetsi arte, indarrean jarraituko dute 147E/2020 Foru Aginduari (147E/2020 Foru Agindua, irailaren 15ekoa, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariarena, zeinaren bidez berrikusten baitira nekazaritza-iturrietako nitratoekin ura kutsatzeko arriskua duten eremuak eta aldatzen baitira 2018-2021 aldirako jarduketa-programak) I. eranskin gisa jasotako jarduketa-programek (Nafarroako Foru Komunitatean 2021-2024 aldirako izendatutako nekazaritza-jatorriko nitratoekin kutsatzeko arriskua duten 1., 2. eta 4. eremuetarako jarduketa-programa) eta II. eranskin gisa jasotakoek (Nafarroako Foru Komunitatean, Cidacos ibaiaren arro hidrografikoan, nekazaritza-jatorriko nitratoekin kutsatzeko arriskua duen 3. eremurako 2021-2024 aldirako jarduketa-programa).

Aldi berean, foru-komunitatean, idazketa-fasean dago simaurren kudeaketa arautuko duen foru-dekretu berria. Foru Dekretu horrekin lotuta, lan-keta-fasean daude, orobat, GESPUR 2.0 eta VEGA aplikazio informatiko berriak. Dagoeneko garatuta dagoen GESPUR 2.0 aplikazioaren bidez, egiaztatzen ahal da zenbatekoa den bene-

tako harrera-ahalmena abeltzaintza-instalazio berri bat edo biometanizazio-instalazio bat ezarri nahi den lurraldean. VEGA aplikazioaren bidez, berriz, aplikazioaren landako zuzeneko jarraipena egiten ahalko da.

2. Zer neurri hartu dira nekazaritzan mindetatik eta beste ongarri organiko batzuetatik eratorritako metano gasaren eta berotegi-efektuko beste gas batzuen emisioak murrizteko, ekonomia zirkularra sustatzeko, EKKLren 53. artikuluan ezartzen den bezala, kontuan hartuta ekonomia zirkularrari benetan erantzuten dioten neurriak izan behar luketela, eta ez lurrak eta urak kutsatuko dituztenak?

Biometanizazioari esker, minden energia-potentziala aprobetxatzen da. Mindak zuzenean soron aplikatuz gero, beste substantzia batzuen emisioez gain, berotegi-efektuko gasen isuri ez-kontrolatuak sortzen dira. Emisio horietan karbono dioxidoa isurtzen da batez ere, eta, bigarren maila batean, metanoa, baldintza anaerobioak gertatzen diren eremuetan, aplikatze okerragatik batez ere.

Biometanizazioaren bidez, materia organikoaren degradazioa modu kontrolatuan gertatzen da, eta biogas bat lortzen da, batez ere karbono dioxidoz eta metanoz osatua. Biogas horren energia-aprobetxamendua egiten ahal da, bai biogas horretatik sortutako biometanoa findua gas naturalaren sarera injeztatuz, bai biogasa edo biometanoa findua elektrizitatea sortzeko erabiliz.

Hau da, berotegi-efektuko gasen emisioa ez da asko aldatzen jardunbide batetik bestera, baina nabarmentzekoa da biometanizazioak energia-aprobetxamendua dakarrela, eta energia sortzeko beste baliabide batzuen kontsumoa murrizten dela horrela.

Hala ere, ez dago planik bere horretan, espedienteak izapidetzean biometanizazioa teknika erabilgarri onentzat hartzeaz harago, Europako araudian behin eta berriz jasotzen den bezala”.

3. Ba al dago Nafarroako lurren eta uren kutsaduraren egungo egoeraren maparik?

Nafarroan ez dago kutsatu gisa deklaraturako lurzorurik, 9/2005 Errege Dekretuaren arabera (9/2005 Errege Dekretua, urtarrilaren 14koa, Lurzorua kutsa dezaketen jardueren zerrenda eta lurzoru kutsatuen deklaraziorako estandarrak eta irizpideak ezartzen dituena).

Nafarroako uren kutsaduraren egungo egoeraren mapa izateari dagokionez, honako informazio hau ematen da:

— https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/estadoecologico.htm webgunean Nafarroako lurrazaleko uren egoera ekologikoaren urteko memoriak kontsultatzen ahal dira.

— https://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Agua/Documentacion/Memorias/AguasSubterraneas.htm webgunean Nafarroako Foru Komunitateko lurpeko uren egoerari buruzko urteko memoriak kontsultatzen ahal dira.

IDENA-Nafarroako Datu Espazialen Azpiegituran, nitratoekin kutsatzeko arriskua duten eremuen geruza kontsultatzen ahal da, 1. galderan aipatutako uztailaren 23ko 85/2025 Foru Dekretuan ezarritakoaren arabera. Eremu kaltebera horiek dira jariatzea nitratoen kutsadurak eragindako uretarantz duten eremu guztiak, Uraren Zuzendaritza Nagusiaren 2022ko maiatzaren 9ko Ebazpenaren bidez Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak 47/2022 Errege Dekretuaren 3. artikuluari jarraituz argitaratutako maparen arabera.

4. Zer pisu emanen zaie sortzen dituzten arazo guztiak direla-eta beren lurraldean horrelako instalazioen aurka dauden landa-eremuko biztanleen mobilizazioei?

Departamentu honen ustez, biometanizazio-instalazioen ezarpenek bateragarriak izan behar dute lurralde-orekaren, eragindako udalerrien interes orokorraren, lurzorua osasunaren eta pertsonen ongizatearen printzipioekin. Ildo horretan, nahitaezkoa da ahalik eta lankidetzaz handiena bilatzea proiektu bakoitzaren eraginpeko toki-administrazioen artean, eta proiektu bakoitza banaka tratatu behar da kasu bakoitzaren inguruabar bereziak kontuan hartuta, eta proiektu bakoitzean gizartearen onarpena lortu behar da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko irailaren 30ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00318. Galdera, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzear buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 12ko 102. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00318 galdera egin du, errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzeari buruz. Hona hemen Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1. Zertan da errepide bidezko bidaiarien hiriarteko garraio publikoko zerbitzuaren emakidak berritzea?

Aurreikuspenen arabera, datozen asteetan esleituko da Iruña – Irun, Baztan-Bidasoa eremua emakida.

Gaur egun, 3 emakida daude lizitatzeko: Iruña–Pirinioetako eskualdea; Iruña–Lizarrar – Logroño – Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoiena; eta Iruña – Donostia, ipar-mendebaldeko eskualdea.

Aurreikuspenen arabera, urte honen azken hiruhilekoan lizitatuko da Iruña – Pirinioetako eskualdea emakida.

Beste bi emakidei dagokienez, Iruña – Lizarrar – Logroño – Donostia, Lizarrako eskualdea eta Erriberagoiena emakidari eta Iruña – Donostia, ipar-mendebaldeko eskualdea emakidari hain zuzen

ere, diseinua lantzen ari gara kanpoko laguntza teknikoz.

2. 2014az geroztik, noiz berritu ziren berrituta-ko emakidak eta noiz amaitzen da emakida horietako bakoitzaren indarraldia? Emakida horiek luzatzea aurreikusten baldin bada, zer epe aurreikusten dira emakida horietako bakoitzaren luzapenerako?

Esleitutako emakidak:

- Iruña – Soria, NAV-001: 2019ko azaroa - 2029ko azaroa.

- Iruña – Tafalla, NAV-002: 2022ko martxoa - 2028ko martxoa.

- Iruña – Tuterar – Zaragoza, NAV-003: 2023ko martxoa - 2029ko martxoa.

- Iruña – Altsasu – Gasteiz, NAV-004: 2023ko maiatza - 2028ko maiatza.

Lurreko Garraioak antolatzeke Legeak bi urteko luzapenak aurreikusten ditu.

3. Zer epe darabil gogoan departamentuak berritu beharreko emakidak formalizatzeko?

Aurreikuspena da 2025ean esleituta egotea Iruña – Irun, Baztan-Bidasoa eremua emakida, eta lizitatuta Iruña – Pirinioetako eskualdea emakida. 2026ko lehenengo sei hilekoan lizitatuko dira beste biak.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez. Horrez gain, jakinarazten dut, datuak babes- teko legedian ezarritakoarekin bat, Nafarroako Par- lamentuko Erregelamenduaren 14. artikuluan jaso- tako xedeetarako soilik erabiltzen ahalko duzula emandako edukia, eta derrigorrean bete beharko duzula Datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa.

Iruñean, 2025eko irailaren 29an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chi- vite Cornago

G saila:

TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-25/ACOP-00025. Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakia, Iruñean unibertsitateko karparen inguruan gertatutako sexu-erasoari buruzkoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko urriaren 29an egindako bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena:

1. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak erabat arbuiatzen eta gaitzesten du Iruñean gertatutako sexu-erasoa, eta erabateko babesa eta elkartasuna erakusten die emakumeari eta haren ingurukoari, bai eta errespeturik handiena ere haren esku-bideak eta intimitatea zaindu daitezen.

2. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berresten du errefusatu egiten duela Nafarroan gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro, eta konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten, segurtasuna hobetzen eta emakumeek ingurune orotan askatasun osoa baliatu ahal izatea bermatzen laguntzeko.

3. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak gonbidapena egiten die herritarrei indarkeria eta eraso sexisten aurrean jarrera aktiboa izan dezaten.

4. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak berretsi egiten du bere konpromiso irmoa eraso sexisten aurkako borrokarekin, eta emakumeentzako hiri libre baten aldeko apustua egiten du eta emakumeen benetako berdintasuna lortzeko lanean jarraituko du, emakumeen aurkako indarkeria mota ororekin amaitzeko bide argi gisa.

5. Nafarroako Parlamentuko Mahaiak gonbita egiten die herritarrei bihar, ostegunarekin, 12:00etan, Iruñeko Udalak deitu duen elkarretartze isilean parte har dezaten, jendaurrean adierazteko eraso horren kontrako gaitzespena eta biktimarekiko elkartasuna.

Bigarrena:

Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko urriaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

